

PARTE HARTZE

PROZESUA

Desgaitasun egoeran dauden pertsonei erreferentzia egiten dien terminologia

UDAL GAIK BILDUMA



Argitaratzailea: Vitoria-Gasteizko Udala

Diseinua eta maketazioa: Erakunde Komunikaziorako Atala

Ilustrazioak: Mercedes Corretge

Itzulpena: Bizkaiko Urtxintxa Eskola

Inprimatzailea: Gráficas Irudi

L. G.:

2019ko apirila

Dokumentu hau edozein pertsonarentzat irigarria izan dadin horrela aurkeztu da:

1. Irakurketa errazeko bertsioa.
2. Jatorrizko bertsioa.

Horrela, arrazoi fisiko, psikiko edo sozialengatik, irakurtzeko zailtasunak dituen edozein pertsonari kultura edo informazioa irigarri egitea da asmoa..



AURKIBIDEA

PARTE HARTZE PROZESUA: DESGAITASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ERREFERENTZIA EGITEN DIEN TERMINOLOGIA

1 > LANKETA PROZESUA

1.1. LAN METODOLOGIA	5
1.2. PROZESUAN PARTE HARTU DUTEN ELKARTEAK	6
1.3. KRONOGRAMA	7

2 > HAUSNARKETAREN GARAPENA ETA ALDARRIKAPENAK

2.1 IZAN EDO EDUKI? ESTEREOTIPOAK EZBAIAN JARRIZ	8
2.2 OHIKO HIZTEGIA. TERMINOLOGIAREN ERABILERA	9
2.2.1 ERABILTZEN EZ DITUGUN HITZAK	10
2.2.2 KOMUNIKABIDEAK ETA ADMINISTRAZIO	11
2.3 DESGAITASUNETIK ANIZTASUN FUNTZIONALERA?	12

3 > DEFINIZIO ETA KONTZEPTUEN INGURUKO EZTABAIDA

14

4 > ERANSKINA. BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK

15



Dokumentu hau, Gasteizko Bizikidetza eta Aniztasun Planetik (2018 - 2020), Gasteizko udaleko Bizikidetza eta Aniztasun zerbitzuak garatu nahi izan duen lan metodologiaren isla da. Bizilagunen inplikazioan eta parte hartzean oinarrituriko eredua da, hirian eta guztion artean, berdintasunean eta errespetuan oinarrituriko inguruneak sortzeko baldintza eta egoerak garatuz.

Modu honetan iristen gara gida honen hasieretara. Bizikidetza eta Aniztasun Elkarguneak, Aniztasun Funtzionala ardatz duen mahaiaren bitartez, komunikazio erak zein hizkuntzaren erabilera eraldatzeko sentsibilizazio ekintzak eratzeko proposamena luzatzen du, desgaitasun egoeran dauden pertsonen eta egoera horretan ez dauden pertsonen arteko harremanak landuz. Emaizta Aniztasun Funtzionalari dagokion terminologiaren zuzentasunari buruzko dokumentua litzateke.

Ikerketak errealitatearen pertzepzioan hizkuntzak duen garrantzia nabarmentzen du. Modu kontzientean erabilitako hizkuntzak, gaiari dagokion pertzepzioa aldatzeko gaitasuna dauka, gure ikuspuntua zalantzan jarriz eta errealitatea bera eraldatuz. Pertsonen arteko harremana errespetuan eta inklusioan oinarritzea dakar, aurreiritzi eta oztopotatik libreago, alegia.

2018ko urrian Aniztasun Funtzionalaren mahaia berriz elkartzen hasten da, prozesu kolektiboari berriz eusteko asmoz. Jasotako erantzuna oso positiboa da, hiru hilabetetan zehar, talde honek, euren arteko ideiak elkarbanatuz, hausnartuz eta zenbait gako landuz. Espazio hauetan eragileek ikuspuntuak elkar banatzen dira, alde gazi - gozoak eta adostasun ezak ere badaudela ikusiz, eta eztabaidak irekita jarraitzen duela kontziente izanik.

Lan talde honen lana *Desgaitasun egoeran dauden pertsonen erreferentzia egiten diren terminologia* izeneko dokumentu honetan loratzen da. Dokumentuaren asmoa hausnarketarako zenbait gako elkar banatzea da, gure jarrera zein portaeren analisisan eraginez eta barneko estereotipo zein irudipenak gaindituz, eta aldi berean, desgaitasun egoeran dauden pertsonekin berdintasunean eta errespetuz jokatzu.


Eskerrak eman nahi dizkiegu euren jakintza eta laguntza prozesuari eskaini dieten eragileei, baita prozesuan parte hartu ez arren, euren egunerokotasunean lanean diharduten horiei ere. Eskaintza honekin, gure begirada aldatzeaz gain, lanerako jarrerak eta erak aldatzea ere espero dugu, gaitasun egoera baten bidean aurrera eginez. Hau da, errespetuan oinarrituz eta eskubide guztiak berdinduz bermatuko duen egoera batean kokatuz.

1 > LANKETA PROZESUA

1.1 LAN METODOLOGIA

Dokumentu honen eraketa **modu parte hartzailean** egin dela azpimarratu beharra dago. Bizikidetza eta Aniztasun Elkargunea, alor honetako parte hartze esparru gorena izanik, 3 mahai ezberdinetan bereizten da: Bakea eta Giza Eskubideak, Aniztasun Funtzionala eta Kulturartekotasuna. Beraz, Aniztasun Funtzionalaren mahaiko kideen parte hartzea ezinbestekoa izan da prozesuan, oinarriak landu, eztabaidatu eta adostasunetara iristeko, elkarbizitzarako oinarri izanik eta Bizikidetza eta Aniztasuna Planaren marko teorikoan ageri den modura.

Aniztasun Funtzionalaren mahaia osatzen duten eragileen artean gaian aditu diren eta jakintza osoa daukaten pertsonak daude. Beraiekin, iritzia jaso, eztabaidatu, ekarpenak zein zuzenketak egin eta azken adostasunera iristeko lan talde bat eratu da.




1.2 PROZESUAN PARTE HARTU DUTEN ELKARTEAK

Orotara, 14 elkarte hartu dute parte prozesuan (online bitartez zein aurrez aurreko saioetan), etenik gabeko harremana egonez.

APDEMA	Adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko Arabako Elkartea.
ARABAKO GORRAK	Arabako pertsona gorren elkartea
ASAFES	Buru-gaixotasuna duten Pertsonen eta Senideen Arabako elkartea
ASPASOR	Entzumen-urritasuna edo gortasuna duten Arabako pertsonen eta euren senideen elkartea
ATECE ARABA	Burmuinean hartutako gaitza dutenen Arabako elkartea
AUTISMO ARABA TEARABA ELKARTEA	Jarduerak, psikologia-arreta eta TEAren diagnostikoa duten familiei laguntza eskaintzen diren elkartea
EGINAREN EGINEZ	Desgaitasun egoera batean dauden pertsonen diskriminaziorik eza eta aukera-berdintasuna sustatzen duen elkartea
FEVAPAS	Euskal Herriko Gorren Lagun eta Gurasoen Elkarten Federakundea
GAZTEDI RUGBY TALDEA	Errugbiaren bidez inklusioa sustatzen duen elkartea
IZANEZ ELKARTEA	Disfuntzionalitate organikoren bat duten emakumezko eta gizonezkoen sexualitate anitzak zaindu eta lantzen dituen elkartea
MONTES SOLIDARIOS	Mendi kirolaren bidez Aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioa sustatzen duen elkartea
ONCE	Ikusmen desgaitasuna duten pertsonen laguntza integrala eskaintzen diren Espainiako erakundea
RETINOSIS ARABA BEGISARE	Erretinosi pigmentarioak eragindako pertsonen elkartea. Ikusmen desgaitasuna.
TALUR	Adimen desgaitasuna duten pertsonen ekintza eta taldekako parte hartzea (aisialdia) sustatzen duen elkartea

1.3 KRONOGRAMA



Prozesuaren aurkezpena	2018-10-18	Prozesuaren aurkezpena Elkarguneko Aniztasun funtzionalaren mahaia osatzen duten eragileei.
Online ekarpenak	2018-10-30	Lehen online galdeketak. Eragileen zalantzak eta erabiltzen dituzten kontzeptu nagusiak jaso ziren.
2. bilera: korapiloak, aztergai	2018-11-05	Kontraesan eta zalantza nagusien inguruan hausnartu zen. Eragile bakoitzaren hausnarketak partekatu ziren ikuspuntu komun bat izateko.
Online ekarpenak	2018-11-14	Lehenengo bilerako ondorioak partekatu ziren online bitartez, ekarpenetarako aukerarekin
3. bilera: korapiloak, aztergai	2018-11-19	Bigarren taldekako saioan, eremu bakoitzean gehien erabili ohi diren kontzeptuei buruz hausnartu zen eta horiek deskribatu ziren.
Online ekarpenak	2018-12-5	Bigarren bilerako ondorioak partekatu ziren, online bitartez, ekarpenetarako aukerarekin
Gidaliburuaren lehenengo zirriborroaren prestakuntza		
4. bilera: orain arte bildutako lana aurkeztu eta adostea	2018-12-10	Eragileen adostasuna lortzeko saio parte hartzailea, Gidaliburua ontzat eman zen.
Trebakuntza-saioak eta ekimenaren entrega-epea	2019	

2 > HAUSNARKETAREN GARAPENA ETA ALDARRIKAPENAK

2.1 IZAN EDO EDUKI? ESTEREOTIPOAK EZBAIAN JARRIZ

Prozesuan parte hartu duten Bizikidetzaren eta Aniztasun Elkarguneko Aniztasun Funtzionaleko mahaiko eragileek bakoitzak bere burua nahi duen moduan definitzeko askatasuna defendatzen dute, ezaugarri batzuen edo besteetan oinarrituz baina beti pertsona kontzeptutik abiatuz.

Uste dute, bizitzaren uneraren batean, egoera eta testuingurua gorabehera, garrantzitsua dela **bakoitzaren ezaugarri eta alderdi bereizlearen arabera** definitzea; hau da, **norberaren aldagai propioekin**: pertsona gorra, pertsona itsua... horrela, bere burua **aldaketarako subjektu politiko** gisa aldarrikatuz.

Aldagai bereizi horietako bat izateagatik **ahalmenik gabeko pertsonak direnaren ustea ezeztatzen nahi dute**, eta aldarrikatu, ahalmen propioak garatuz, trebatuz eta neurtuz joaten dela gutako bakoitza bizitzan.

Alde batera utzi nahi dute desgaitasunaren inguruan gizartean (komunikabideetan, iragarkietan...) dagoen ustea, **desgaitasunaren inguruan dagoen estereotipo** bati erantzuten baitio.

Desgaitasunaren inguruko aurreiritziek alde batera uzten dute giza talde honen gehiengo zabala. Uste hauek, lehenengo begi bistan desgaitasunaren estereotipo hori betetzen ez duten pertsonak (betaurrekoak edota makila ez eramateagatik adibidez) **baztertu** egiten dituzte, egoeraren berri eman ezean zakartzat ere joz.

Bizitzaren ikuspegia aberasteko eta irekitzeko premia aldarrikatzen dute, jendartearen aniztasuna aitortu eta benetako jendarte inklusiboak eraikiz.

Ez dute euren burua uneoro identifikatzen ibiltzerik nahi, eta beraz, diskurtso politikoak aldatzea aldarrikatzen dute, baina bereziki, **aldaketak ematea**. Aldaketak **hauek egitura** eta lan-tresnetan ematea alegia, **benetako inklusio baten alde**.



2.2 OHIKO HIZTEGIA. TERMINOLOGIAREN ERABILERA

Prozesuaren parte izan diren eragileek garrantzitsutzat jotzen dute hainbat kontzeptu erabiltzerakoan gure buruari galdetzea **zergatik erabili ote dugun hitza, nola barneratu dugun** eta zer adierazi nahi izan dugun erabilera jakin horrekin. **Hizkuntzaren erabilera errespetuzkoa** izan behar da, aintzat hartzen duen gizataldearen aniztasuna eta beharrianak identifikatu eta errespetatuko dituen. Hau da, **praktika eta diskurtsoaren** artean koherentea izango dena.



*“Guztia **erabiltzen dugun hitzetatik** hasten da” (lehenengo saiotik eratorritako ekarpena)*

Eremu formalean erabilitako hiztegiaren (komunikabideetan; politikarien artean; diskurtsoetan; lan-eremuetan...) eta modu informalean erabilitako hiztegiaren (lagun artean, konfiantza dugunok...) artean bereizten dute, gakoa errespetua izanik.

Hitzen erabilera inklusiboaren aldeko aldarrikapena egiten dute, eta lasaitasunez erabiltzea defendatu, natural-natural, **“politikoki zuzena” den edo ez gure buruari etengabe galdetu gabe**, eta norabide gabeko bideetan galdu gabe.

Hizkuntzak baditu bere esaldi eginak, ontzat hartzen diren hitzegiteko moduak: *“ikusiko gara!”*; *“hemen ikusi daitekeen moduan”*... Hizkuntza baten gakoa erabiltzeko modua da, baita hartzailearekin dagoen konfiantza-maila ere. Horretarako beharrezkoa da batak zein besteak sentsibiltatez jokatzeko, tentuz jokatzeko eta kontuan izatea, bizitzaren zein momentutan dagoen bakoitza (egoera berri bati egokitu nahian, onartze-fase batean...).

2.2.1 ERABILTZEN EZ DITUGUN HITZAK

Errespetuzko hizkuntza baten erabilera bultzatu behar dela diotenean, giza talde bakoitzak **definitzeko** erabili ohi dituen **hitz eta definizioez** ari dira. Baita **egunero erabili ohi diren konnotazio negatiboa duten hitzei buruz** ere.

**Hitzen atzean
dagoena dela garrantzitsua.
Bere esanahia eta esaten
den bakoitzean eragiten duen
hori**

Honekin batera, ohiko hiztegian, **egoerak, pertsonak edo izateko moduak** definitzerakoan zenbait hitz arinkeriak erabiltzen direla uste dute. Adibidez:

“Askotan autistatzen jo eta identifikatu ohi dira pertsona batzuk, arinkeriak, despistatuak besterik ez direnean. Horrek, autismoa duten seme-alabak ditugunoi mina eragiten digu” (Arabako Autismo TEAraba Elkartearen ekarpena).

Adjektibo izatetik izen izatera pasa diren hitzei erreparatu behar zaiela diote: “*desgaitua*”; “*ezindua*”, “*ezgaia*”, “*atzeratua*” edo “*gaixoa*” hitzak esaterako. Baita garapen zientifikoa izan dute beste adiera batzuei ere: “*idiozia*”, “*mongoloidea*”, “*subnormala*”, “*borderline-a*”. Gainera, gaur egun hitzak aldatu diren arren, **esanahi bera eman ohi zaie eta lehengo beretsu sentitzen dira.**

Berrirori ere, eragileek argi utzi nahi dute hitzen atzean dagoena dela garrantzitsua. Bere esanahia eta esaten den bakoitzean eragiten duen hori; hitz horren konnotazioa, alegia.

Beste hitz batzuk baztertu eta desgaitu egiten dituztela diote, “*gaixoa*” bezalako hitzak, edo “*eroa*” hitzak, esaterako. Hitz horien oinarrian dago desgaitasunaren inguruan dagoen ikuspegia eta joera nagusia, baita **ageriko joera paternalista** ere.

2.2.2 KOMUNIKABIDEAK ETA ADMINISTRAZIOA

Gaitzetsi nahi dute jendartean erabili ohi diren zenbait hitz desegoki **administrazioan edota komunikabideetan ere erabiltzen direla eta ez dituztela desgaitasun egoeran dauden pertsona modura ordezkatzeko**. Administrazioak esaterako, “*baliazintasun*” hitza erabiltzen du, baita “*minusbaliatu*” eta “*kaltetu*” bezalako hitzak ere. Azken horiek kalean entzun daitezke, baina baita zenbait komunikabideetan ere.

Zenbait unetan, hainbat hitz sinonimo modura erabili ohi dira, duela urte dezente erabilitako hitzak gaur egun onartutakoekin nahastuz esaterako, eta honek, kontzeptuak nahastuz. “*Minusbaliatu*” hitza adibide argia da. “*Minusbaliatu*” eta “*desgaia*” aldi berean erabili ohi dira komunikabide eta diskurtso ofizialetan.

“*Baliezintasun*” eta “*ezgaitasuna*” hitzak, oraindik orain, administrazioak erabili ohi dituen kontzeptuak dira egoera jakin batzuk deskribatzeko. Lan-eremuan erabili ohi dira pertsona baten lanerako ahalmenari buruz mintzatzeko. Eta ezin dira, inolaz ere, “*desgaitasun*” hitzarekin parekatu¹. Hori dela eta, subjektu gisa identifikatzen ez dituen arren, modu egokian erabili daitezkeen kontzeptuak dira.



¹ <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1994-14960>. Gizarte Segurantzako Lege Orokorreko 137. artikulua onartzen den Ekainaren 20ko 1/1994 Errege Lege Dekretua

1. Alde bateko ezgaitasun iraunkorra; 2. Ezgaitasun iraunkor osoa; 3. Ezgaitasun iraunkor absolutua; 4. Baliazintasun handia

2.3 DESGAITASUNETIK ANIZTASUN FUNTZIONALERA? HITZAK BIZI DITUGUN MODUEN INGURUAN

Hiru galdera nagusi dira desgaitasuna eta aniztasun funtzionalaren inguruko kontzeptuei buruzko hausnarketaren abiapuntua:

1. **Zeri buruz ari gara** desgaitasuna eta aniztasun funtzionalaren inguruan hitz egiten dugunean?
2. Ez ote gara, akaso, pertsona guztiak anitzak?
3. Aniztasun funtzional hitzak laguntza jakin eta zehatza behar duten pertsonen egoera gutxiesten du?

“Aniztasun funtzionala” kontzeptuaren esanahia eta erabilgarritasuna aberasteko beharretik abiatzen da hausnarketa. Hitz hori gizaki guztien egoera deskribatzeko erabili daiteke (“guztiok gara anitzak” esalditik esaterako), eta kasu askotan kontzeptu orokor eta urrun moduan sentitzen da.

Ez da bere erabilera baztertzen, baina eragileek hitzaren funtsaren birformulatzearen alde egiten dute, ez dadin soilik “politikoki zuzena” den hitza izan.

Aldi berean, “*guztiok gara anitzak*” indargabetu egiten du laguntza-behar jakin batzuk dituzten pertsonen egoera, gizabanako oro egoera berean kokatuz eta, modu horretara, laguntza eta behar bereziak dituztenen egoera apalduz.

Eragileek ez dute uste irtenbiderik egokiena “*askotariko modu batean funtzionatzen duten pertsonak*” kontzeptutik etorriko denik, aurretiaz aipatutako hausnarketa berera garamatzalako.

Bereiztutako nortasun bat emango dien kontzeptuaren alde egiten dute, subjektu moduan definituko dituen

*“Gizabanako guztia anitza bada funtzionatzeko moduagatik, horrek esan nahi du **bereiztutako giza talderik ez dela existitzen. Eta, ondorioz, ezta diskriminaziorik ere**” (Izanez elkarrearen ekarpena)*

Prozesuan parte hartu duten elkarreetan desgaitasun hitza aniztasun funtzionala hitza baino gertuago sentitzen dute, desgaitasuna “gaitasun gutxiago” definiziotik urrunduz eta kontzeptua euren elkarten errealitatearekin lotuz.

Hala ere, **ez dute uste desgaitasuna baldintza bat denik. ingurunearen eta gizartearen baitan desgaitasun-egoerak** sortzen direla azpimarratuz; adibidez, hiriak sortzen edo hedatzen direnean, eraikinak egitean... Zerbitzu horiek **ikuspegi bakar bat** medio sortzen dira: “gizonezko zuria, adin tarte ertainekoa eta kotxe baten jabea” oinarri hartuta.


Egoerak bere horretan jarrai ez dezan, baldintza, gizarte, pentsaera eta azpiegituran aldaketak eman beharra aldarrikatzen dute.

Adibideak: igogailurik ez badago, ikusmen eta entzumen-baliabideak... ingurunea ezingo da kognitiboki irigarria edo erabilterraza izango. Desgaitasun-egoerak sortzen ditugu eta pertsona guztiak ez ditugu aintzat hartzen

“Desgaitasun-egoeran dauden pertsonak” eurak izendatzeko modu egokia izan daiteke

Horrenbestez, **identitate bereiztua** emango dien **kontzeptu** baten aldeko hautua egiten dute, **“desgaitasun-egoeran dauden pertsonak”** eurak izendatzeko modu egokia izan daitekeela aipatuz. Subjektu moduan definitzen dutela diote, kolektibo gisa ere batuz.

Unean-uneko beharren arabera, beharrezkoa da **dimentsio sexuala**, adina edota arraza bezalako ezaugarriak azaleratzea, **aldarrikapen eta ikusgarritasunerako**.



3 > DEFINIZIO ETA KONTZEPTUEN INGURUKO EZTABAIDA



- **ANIZTASUN FUNTZIONALA DUEN PERTSONA:** definizio honen bidez, funtzionatzeko modua zehazten da, modu askotara edo anitzean funtzionatzen duen pertsona izendatuz (taldekako saioetatik eratorritako definizioa).
- **DESGAITASUN-EGOERA BATEAN DAGOEN PERTSONA** (adimen, zentzumen, fisiko...) Kontzeptu honek nortasun bereizia ematen digu, pertsona moduan definituz (taldekako saioetatik eratorritako definizioa).
- **INKLUSIOA:** jendarteko eremu guztietan parte hartze osoa bermatuko duena. Horretarako, laguntzak eskainiko dira desgaitasun-egoerak suertatu ez daitezzen. “Inklusio” hitza nahiago dugu “integrazio” hitza baino (taldekako saioetatik eratorritako definizioa)²
- **INTEGRAZIOA:** Jendarteko kide guztion arteko elkar egokitze prozesua, dinamikoa eta alde bikoia dena. (Migraziorako Euskal Itun Sozialerako proposamenean jasotako definizioa)
- **ADIMEN-OSASUNA:** Adimen-osasuna ongizate-egoera bat da. Egunerokotasunean, bizitzaren estres-mailari aurre egiteko gai bada, bai eta modu eraginkor batean lan egiteko eta inguruko komunitateari ekarpena egiteko ere. Adimen-osasuna norbanakoaren ongizatearen oinarria da eta komunitatearen funtzionamendu egokiaren seinale. Adimenaren

2 Nazio Batuen Erakundearen desgaitasuna duten pertsonen inguruko hitzarmena. Desgaitasunari buruzko informazio-zerbitzua (2006ko abenduaren 13^a). <http://sid.usal.es/leyes/discapacidad/10244/3-4-1/convencion-de-la-onu-sobre-los-derechos-de-las-personas-con-discapacidad.aspx> estekatik berreskuratua.

zaintzarekin zerikusia du kontzeptu honek eta bizitzako hainbat egoera, une eta alderdirekin: depresioa, onarpen-egoerak, blokeo-egoerak.... (Munduko Osasun Erakundearen definizioa, taldekako saioetako ekarpenekin)

Oso estigmatizatuta dagoen kontzeptua da eta askotan “gaixotasun” hitzarekin lotzen da, zuzena ez bada ere. Gaixotasun batek nahitaez diagnostiko bat izan behar du; bestela, ez da gaixotasuna.

Adibidez, “eritasun mental baten diagnostikoa duen pertsona” eta ez “eritasun mentala duen pertsona” (ASAFES-en ekarpena).




- **AUTISMO-ESPEKTROKO TRASTORNOA (TEA):** TEA delakoa adimen desgaitasun bat da. Espektroa hain da zabala zaila dela erabat zehaztea. Pertsona batzuren kasuan, kaltea nabarmena da, eta beste kasu batzuetan gizarte-harremanetan korapilatzen dira. Batzuetan eritasun bat dela esaten da, baina izatez ez da, aniztasun baten seinalea da, errealtatea hautemateko bestelako modu bat (Autismo Araba TEAraba Elkartearen ekarpena)
- **NEURONA-ANIZTASUNA:** Neuroatipiko kontzeptua ez da erabiltzen, aproposagoa da pertsona neuroanitza (Autismo Araba TEAraba Elkartearen ekarpena)
- **BURMUINEAN HARTUTAKO GAITZA DUEN PERTSONA:** Burmuinean hartutako gaitza (DCA) burmuinean bat-batean eragiten duen lesioa da. Bat-batean agertzen delako da ezaguna, ez da endekapenezko gaixotasuna. Burmuinean min hartutako eremuaren arabera ondorioek eta kalte-mailek baldintzatzen dute. Ondorio horiek direla eta, hautemate-prozesuan aldaketa nabarmenak eragiten ditu, baita aldaketa fisiko, kognitibo eta emozionalak ere (Espainiako federazioaren definizioa, ATECE Arabaren ekarpenekin)
- **PERTSONA GORRA:** Entzumenaren zentzumena erabiltzeko zailtasuna edo ezintasuna duen pertsona da, alde bateko zein bi aldeetako entzumen-ahalmena (hipocausia) edo entzumen-gaitasun osoa (cofosis) galdu duelako, (taldeko saioen ekarpena, Munduko Osasun Erakundearen ekarpenetik abiatuta).
Kontuan hartu behar da “gormutu” hitza ez dela zuzen erabiltzen, izan ere pertsona gorra ez dira mutuak. Mututasuna ez dago zuzenean gortasunarekin lotuta (Aspasor eta Fevapasen ekarpenak).



“Gure eremuan hizkuntzaren terminologiaren inguruan lan egitea ez da erraza; izan ere, hizkuntzaren beraren ñabardurak dira erabili ohi ez direnak eta pertsona gorrentzako eskuraezinak dira zeinu-hizkuntzaren bidez. Zaila izan ohi da zenbait kontzeptu definituko dituzten zeinuak topatzea (“Arabako Gorra” elkartearen ekarpena).

- **ZEINU-HIZKUNTZA:** Izaera bisuala, espaziala, esku eta keinuetako izaera duen hizkuntza naturala. Hizkuntzaren garapenean baldintza historiko, kultural eta gizarte eta hizkuntza-aldagaiak esku hartzen dute (27/2007 Legean 4. artikuluan biltzen den definizioa)³. Ez dugu “zeinu-hizkera” kontzepturik erabiliko, “zeinu-hizkuntza” adiera baizik.
- **ZEINU-HIZKUNTZAREN INTERPRETEA (ILSE):** zeinu-hizkuntzen eta ingurune ahoko hizkuntzen ezagutza duen profesionala. Gai izan behar da hizkuntza horietako mezuak modu eraginkor batean beste hizkuntzetara itzuli eta komunikatzeko. Komunikazio-bitartekaritza egiten du ahoko hizkuntza eta zeinu-hizkuntzaren artean, eta haien inguruko kulturen artean. Ez dugu, beraz, “zeinu itzultzaile” adiera erabiliko, “zeinu-hizkuntzen interpretea” hitza baizik. (taldeko saioen ekarpena, <http://lsefacil.es/el-interprete-de-lengua-de-signos/> web guneko definiziotik abiatuz).



- **PERTSONA ITSUA:** Erabateko itsutasuna duen pertsona. Ikusmen-eremua 10 gradu baino gutxiago duen pertsona edota ikusmen-zorroztasuna 0,1 gutxiago duena (Retinosis Araba Begisare elkartearen ekarpena).

- **IKUSMEN-DESGAITASUNA DUENA, ITSUTASUNAREN HAINBAT GRADUTAN:** Legearen aurreanitsuak direnak, erabatitsu direnak edota ikusmen-maila baxua duten pertsonak (espainiar Estatuan 20 graduko eremuaren behetik daudenak edo ikusmen-zorroztasuna 0.3-ren bueltan dutenak) (Retinosis Araba Begisareren ekarpena).

- **IKUSMEN-EREMU BAXUKO PERTSONAK:** Espainiar Estatuan, ikusmen-eremua 20 gradutik behera duena edota ikusmen-zorroztasuna 0,3 baino gutxiago edo parekoa duen pertsona. (Retinosis Araba Begisare elkartearen ekarpena).

³ 27/2007 legea, urriaren 23koa. Lege honen bidez espainiar zeinu-hizkuntzak aintzat hartu ziren eta aratu egin ziren pertsona gorren laguntza eta babeserako bitartekoak, ahoko-komunikazioaren kasuan, entzumen-degaitasunaren kasuan eta itsugorrek diren kasuan.

- **IKUSMEN MURRIZTUA DUTEN PERTSONAK:** ikusmen-degaitasuna duen pertsona eta, oraindik orain, ikus-eremuren bati eusten diona. (*Retinosis Araba Begisare elkartearen ekarpena*).
- **MIXED ABILITY:** Ikuspegi berritzaile bat proposatzen du txikitatik eskola-kirolean hasten direnen artean oztopoak gainditu asmoz, guztien parte hartzea erabatekoa izan dadin. Suertatu ohi diren egoerei aurre egin nahi die, hala nola, gaitasun-maila bestelakoei, adin-desberdintasunei, generoari, eskarmentuari, sexu-orientazioari edo autoestimua eskasari. Pertsonetan oinarritzen da euren erabaki propioen protagonista gisa hartuz. Gaitasun-maila hainbateko parte hartzaileek euren eskarmentua eta ikaste-prozesua partekatzen dute eta horretarako hezkuntza-baliabide elkarrengatik eta eskura errazak erabiliko dira, betiere entrenamendua errazte aldera. Hala, ingurune eta giro aproposak, inklusiboak eta ziurak sortuko dira. (*Gaztedi Rugby taldearen ekarpena*).



4 > ERANSKINA. BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK

- Estatuko Agentziaren Buletin Ofiziala (1994ko ekainaren 26a). <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1994-14960>
- Estatuko Agentziaren Buletin Ofiziala (2007ko urriaren 24). <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2007-18476>
- Wikipedia. <https://es.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Portada>
- ESPAINIAKO ADIMEN OSASUNAREN KONFEDERAKUNDEA. <https://consaludmental.org/>
- FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE DAÑO CEREBRAL. <https://fedace.org/index.php>
- MUNDUKO OSASUNAREN ERAKUNDEA. <http://www.who.int/es>
- PLENA INCLUSIÓN. <http://www.plenainclusion.org/sites/default/files/posicionamientoterminologia-def-23-06-17.pdf>
- COMITÉ ESPAÑOLA DE REPRESENTANTES DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD. <https://www.cermi.es/>
- APDEMA. ADIMEN-EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO ARABAKO ELKARTEA. <http://www.apdema.org/>
- RETINOSIS ARABA BEGISARE. <http://www.begisare.org/creacion-de-retinosis-araba-begisare/>
- INTERNATIONAL MIXED ABILITY SPORTS. <http://www.mixedabilitysports.org>

- TALUR ELKARTEA. <https://www.facebook.com/TALURAsociacionElkartea/>
- GAZTE DI RUGBY TALDEA. <http://www.gaztedirugby.com/>
- ARABAKO GORRAK. <http://arabakogorrrak.blogspot.com/>
- ASPASOR. ARABAKO GORREN GURASO ETA LAGUNEN ELKARTEA. <http://www.aspasor.org/eu/aspasor-eu/ongi-etorri/>
- FEVAPAS. EUSKAL HERRIKO GORREN LAGUN ETA GURASOEN ELKARTEEN FEDERAKUNDEA. <http://www.fevapas.org/>
- AUTISMO ARABA / TEARABA ELKARTEA. <http://www.autismoaraba.org/eu/>
- ATECE ARABA. BURMUINEAN HARTUTAKO GAITZA DUTENEN ARABAKO ELKARTEA. <https://www.atecearaba.org/>
- ASAFES. BURU GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONEN ETA SENIDEEN ARABAKO ELKARTEA. <http://www.asafes.org/wcas/index.asp>
- EGINAREN EGINEZ. EZINTASUNA DAUKATEN ARABAKO PERTSONEN ELKARTEA. http://www.eginez.org/v2/pagina.php?index=1&id_p=44
- IZANEZ ELKARTEA. <https://es-la.facebook.com/Izanez.Elkarte/>
- ONCE. <https://www.once.es/>
- MONTES SOLIDARIOS. <http://montesolidarios.org/>